


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

SAN BARTOLOME 33



Egile eta data ezezagunak
(Ez dago espedienterik Udal Artxiboan)

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina. Behe oina, hiru goi oin eta beste oin bat atzeraemana ditu. Harlanduzko fatxada (kuxindura formakoa behe oinean eta lehen oinean), eta 2. eta 3. oinetan hormigoizko begiratokia du erdialdean –begiratokiak hiru bao hartzen ditu–. Konposizioari, apaingarriari eta sekzioari dagokionez San Bartolome 31ren berdina da.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.

A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: San Bartolome kaleskara ematen duen fatxada (San Bartolome kalera ematen duen fatxadan soilik du eragina babesak); 4. goi oin atzeraemana.

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.